

HIZKUNTZA GAITASUNEN AZALPENA

C2C2

C2C2ren hizkuntza-gaitasunen azalpena

Mailaren jabea gai da:

- Entzundako testu formalak ulertzeko, hizkera mota edozein dela ere.
- Edozein testu mota ulertzeko eta lanaren inguruko txostenak, artikulua, aldizkari espezializatuak eta, oro har, irakurritakoaren zehaztapenak jasotzeko.
- Lan-esparruko eta bestelako edozein egoeratan –oso konplexua izanda ere– egindako azalpenetan, elkarrizketetan edota eztabaidetan, bat-batean, erabat zuzen, ziur, natural eta jario handiz aritzeko.
- Era askotako testuak sortzeko: testu erabat argiak, koherenteak, zehaztasun handikoak, zuzenak eta estilo egokikoak.

C2C2 hizkuntza-eskakizuna eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) C2 maila baliokideak dira.

C2 mailaren deskribapen orokorra (EEMB)

Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko.

Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten.

Badaki bat-batean, jario handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren ñabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

C2

| IDAZMENA | |
|---------------------|--|
| Egokitasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Gaiari heldu dio. • Azalpenak eta argudioak eman ditu, eta ez da mugatu adibide eta pasadizo hutsetara. • Hitz kopurua bete du. • Testu mota errespetatu du. (<i>Esaterako, argudiozko testua –iritzi-artikulua, kasu– eskatu bazaizu, ez idatzi bestelakorik, azalpen hutsezko testua adibidez</i>). • Kontuan hartu du testu osoan nori idatzi dion, zertarako, testuingurua... eta erregistroa zaindu du. |
| Koherentzia | <ul style="list-style-type: none"> • Ideiak argi, zehatz eta egoki antolatuta adierazi ditu. • Testuaren egitura egokia da. Informazioa modu progresiboan eman du. |
| Kohesioa | <ul style="list-style-type: none"> • Ideiak, esaldiak eta paragrafoak ondo eta egoki lotuta daude; horretarako, testuari batasuna emateko kohesio-forma eta lotura logikoak zuzen eta egoki erabili ditu testu osoan. • Puntuazioa egoki eta zuzen erabili du. Ondorioz, testuaren irakurketa garbia da. |
| Aberastasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Lexiko orokorra, hau da, dibulgazio-gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) ez ezik, lexiko berezitua ere (lan-esparrukoa...) zuzen, egoki eta zehatz erabili du. • Ideiak zehaztasun eta ñabardura guztiez adierazi ditu, baliabide oparoak erabilita. |
| Zuzentasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Ortografia zuzen erabili du. • Ia ez du akatsik egin. |

C2

| MINTZAMENA | |
|--------------------------|---|
| Komunikagaitasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Gaiari buruzko azalpenak, argudioak, iritziak eta ideiak argi, zehatz, ondo antolatuta eta egoki lotuta eman ditu. • Elkarrizketan iritzia, argudioak eta informazioa trukatzeko ez du arazorik izan; hau da, hartu eta eutsi egin dio hitzari, esan nahi duenari mugarik jarri gabe. • Malgutasun handia erakutsi du ideiak birrantolatzeko. • Ariketa bietan erabili du erregistroa egoki. <i>(Kontuan hartu bakarrizketan ez ezik, elkarrizketan ere lexiko zehatza erabili beharko duzula eta ideiak xehetasunez adierazi, behar diren baliabideak erabilia).</i> |
| Jariotasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Bat-batekotasunez, jario handiz, erraz eta trebetasunez egin du hitz, bai azalpenetan, bai elkarrizketan. • Hitz egitean erabateko ziurtasuna erakutsi du. • Etenak behar bezala egin ditu, esaldien barruko zein esaldien arteko egiturak errespetatuta. • Natural hitz egin du. |
| Aberastasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Lexiko orokorra, hau da, dibulgazio gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) ez ezik, lexiko berezitua ere (lan esparrukoa...) zuzen, egoki eta zehatz erabili du. • Ideiak zehaztasun eta ñabardura guztiez adierazi ditu, baliabide oparoak egoki erabilia. • Zailtasunak erraz saihestu ditu. |
| Zuzentasuna | <ul style="list-style-type: none"> • Jardun zuzena osatu du, akatsik gabea. • Egiturretan ez du erdararen eraginik. • Ahoskera eta intonazioa egokiak eta naturalak izan dira. |